



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 14a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako industrialdeetarako laguntzei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuak Iberdrolan duen akzioen paketea mantentzea Nafarroaren interes orokorrekoa ote den, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (2. or.).
- Galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak LTD-aren bitartez ETBko kanalak ikusi ahal izateko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (3. or.).
- Galdera, etxetresnen Renove planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluan izanen dituen bi ordezkariak hautatzeko arauak (8. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako industrialdeetarako laguntzei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako industrialdeetarako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko lehen eledun-ondoko Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko

galdera hau aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilari Roig jaunak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan izanda eztabaida ireki dela foru edo toki administrazioak Tuterako nekazaritzako elikagaien hiria izenekoari eman diezazkiokeen laguntzei buruz –eraikinen eta obren gaineko zerga eta uraren kanona %50 inguru jaistea, kasu–, eta aintzat hartuta, halaber, bizi dugun krisialdiaren ondorioz neurriak hartu behar direla enpleguari eta ekonomia-sektoreetan industria-ehunaren produktibitateari eusteko, ondokoa jakin nahi dugu:

Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak aukera edo eskaera hori? Hortaz, Gobernuak prest al dago neurri horiek Nafarroako gainontzeko industrialdeetan ere, edo behinik behin jarduera nagusia hirugarren sektorean dutenetan, aplikatzeko?

Iruñean, 2008ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakiteko Gobernuak Iberdrolan duen akzioen paketea mantentzea Nafarroaren interes orokorrekoa ote den.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Gobernuak Iberdrolan duen akzioen pake-

tea mantentzea Nafarroaren interes orokorrekoa ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako burtsan azkenaldian gertatutako beherakadak, aurreko astean areagotu baita, Nafarroako Gobernuak Iberdrolan duen akzioen paketearen burtsa-balioa jaistea ekarri du.

Nafarroako Gobernuak orain arte esan du inbertsio publiko garrantzitsu hori Nafarroaren interes orokorrari begira egina zela. Gobernuaren ustez, akzioen pakete horrek iragan ostiralean, urriak 10 (galdera honi dagokionez hori da burtsaren azken erreferentzia-eguna) burtsan zeukan balioak justifikatzen al du inbertsio hori interes orokorrekoa izatea?

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak LTD-aren bitartez ETBko kanalak ikusi ahal izateko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer zuzemen egin dituen Nafarroako Gobernuak LTD-aren bitartez ETBko kanalak ikusi ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzutako honako ezohiko galdera aurkeztu du, urriaren 16rako eta 17rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

2008ko urriaren 7an, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, agerraldia egin zuten Parlamen-

tuan Anesitel-Telekomunikazioetako Instalazio-entresen Nafarroako Elkarteko ordezkariak, lurreko telebista digitala Nafarroan ezartzeko prozesua zertan den azaltzeko.

Lan-bilera hartan, zeinetan egon baitziren elkarte horretako lehendakaria eta idazkaria, LTD-a instalatzeko prozesu teknikoaren eta LTD-aren ikus-entzule kopuruaren arteko disimetria aipatu zuten; izan ere, LTD-a etxean % 60-70era heltzen da gaur egun, baina ikus-entzuleen kopurua ez da % 11ra heltzen. Anesiteko profesionalen ustez, disfuntzio hori ETBko kanalek Nafarroan egun duten egoerari zor zaio batik bat; izan ere, ETB-1 eta ETB-2 ez direnez telebista digitalaren bidez ikusten, bi sistemak batera mantenduko dira seinale analogikoa itzali arte.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer zuzemen egin ditu Nafarroako Gobernuak erakundeetan, eta zer egutegiri jarraikiz, hainbat arinen ikusi ahal izan daitezen LTD-aren bitartez ETBko kanalak?

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, etxetresnen Renove planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du etxetresnen Renove planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du etxetresna elektrikoak berritzeko planari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Galderaren edukia premisa oker batetik abiatzen da; izan ere, uneotan Nafarroako Gobernuak ez du inolako laguntza lerrorik zabalik etxetresna elektrikoak berritzeko planari lotuta.

Programa hori sartzten da Nafarroako Gobernuak IDEA-rekin energiaren aurrezpen eta efizientziarako urtero egiten dituen ekintzen barnean. Etxetresna elektrikoak berritzeko plana bi erakunde horiek aurtengo ekitaldirako sinaturiko hitzarmenean kokatzen da, eta asmoa da plan hori 2008ko bigarren seihilekoan gauzatzea.

Nafarroako Gobernuaren ustez, etxetresna elektrikoak berritzeko plana ekimen eraginkorra da eta babes handia jaso du herritarrengandik; hala erakusten dute 2006ko kanpainaren emaitzek (adibide gisa eman dira), non 70 euroko laguntza eman zen etxetresna elektriko bakoitzarengatik.

Saldutako etxetresna elektrikoaren kopurua			Sorturiko inbertsioa
Garbigailua	3.860	%46,70	1.808.171,78
Konbi hozkailua	2.918	%35,30	1.647.323,31
Ontzi-garbigailua	1.256	%15,20	615.496,91
Izozkailua	226	%2,70	121.757,97
Guztira	8.260		4.192.749,97

- Urtean 2.280 kWh aurreztea lortu da.
--> 572 familiak urtean kontsumitzen duten elektrizitatea adina.
- Atmosferara 1.098 Tm CO₂ isurtzea saihestu da.
--> 422.300 litro gasolio kontsumitzea adina.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK BERRITZEKO 2007ko PLANA

Hasiera: 2007ko ekainaren 18an.

Amaiera: 2007ko urriaren 18an.

Berrituriko etxetresna elektriko bakoitzarengatik emaniko dirulaguntza: 80 euro.

Saldutako etxetresna elektrikoaren kopurua: 9.901 unitate.

Bost espediente besterik ez daude ebatziteke, eta horien dirulaguntza ordainduko da edo ez, ezarritako epean beharrezko egiaztagiria ekarztearen arabera.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du ondokoa jakiteko: Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua kanpoko zerbitzuak direla-eta; B14 deituriko dirusarrerak eta beste ekitaldi batzuetako etekinak; Briones jaunaren eta Martínez Izquierdo jaunaren soldata gordina; patronatuak Martínez Izquierdo jaunaren kontratua ez berritzeko aukera aztertuko duen eta kontuan hartuko den zuzendari titularraren kontratua berritzearen aurka dauden musikariren iritzia. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Orkestra Sinfonikoak 2.125.601 euroko gastuak izan ditu 2006an kanpoko zerbitzuak direla eta. Gastu horiek, 2005ean, 1.252.493 eurokoak izan ziren. Zerk eragin du gastua hainbeste igotzea?

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak bere urteroko gastuak egokitzen ditu izandako dirusarreretara. Jardueraren maila eta motaren arabera eta kontusail ezberdinen arteko banaketa.

2005ean, 4,8 milioi euroko dirusarrerak egon ziren, eta 2006an, 5,6 milioi eurokoak.

Halaber, 2005eko ekitaldiko emaitzak 33.000 euroko saldo positiboa izan zuen, eta 2006an, emaitza ere positiboa izan zen, 7.600 eurokoa. Bi diru-kopuru horiek Foru Ogasunari itzuli zitzaizkion, Dirulaguntzei buruzko Legeari jarraikiz.

2.- Nafarroako Orkestra Sinfonikoak ba omen ditu 461.679 euroko aparteko dirusarrera batzuk –“B14 beste ekitaldi batzuetako dirusarrerak eta irabaziak” izenekoak–. Zeri zor zaizkio irabazi horiek?

Galderan aipaturiko dirusarrera horiek orkestrak eskatutako BEZaren itzulketatik datoz, funtsean; hori Europar Batasuneko Auzitegi Nagusiak emaniko epaiaren ondorio da, zeinak BEZaren itzulketa agindu zuen, hainbanaketaren arauaren aplikazioa dela-eta.

3.- Zein da Briones jaunaren eta Martínez Izquierdo jaunaren soldata gordina?

Datu horiek pertsonalak dira eta fundazio pribatu batek kontratatutako pertsonari eragiten diete; hortaz, ez dirudi egokia denik horiek argitaratzea.

4.- Gerta daiteke patronatuak Martínez Izquierdo jaunaren kontratua ez berritzeko aukera aztertzea?

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren plantillako musikari finkoen ordezkariak patronatuaren osoko bilkuran adierazi zuten zer zeritzoten zuzendari titularraren kontratua berritzeari. Patronatuak aintzat hartu zuen iritzi hori, bai eta gai berari buruzko beste aldaera eta iritzi ugari ere. Hori horrela, dagokion ahalmena erabilita, aho batez onetsi zuen gaur egungo zuzendari titularraren kontratua bost urterako berritzea, 2013ko ekainera arte. Patronatuak berriro ere aztertuko du zuzendari titularraren kontratua berritzeko aukera, haren kontratuaren epemuga heltzen denean.

5.- Kontuan hartuko al da zuzendari titularraren kontratua berritzearen aurka dauden musikariren iritzia?

Beti hartzen dira kontuan Nafarroako Orkestra Sinfonikoko musikariren iritziak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 13an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du bulego publikoen irisgarritasunari eta arkitektura-oztopoei buruz (PES-167 galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak zorrozki betetzen du uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea, oztopo fisikoei eta sentsozialei buruzkoa, eta bereziki bere 2. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa. Hori horrela, eta departamentuari dagozkion zerbitzuen bidez, aipaturiko foru legeko 6. artikuluan ezarritakoa betetzen da, bai eta legean jasotako xedapenen edukia eta aplikatzeak diren arau orokorrak ere.

Eginiko galderaren alderdi zehatz bati dagokionez, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne

Departamentuari dagokionez, adierazi behar da lehenik eta behin departamentu hau Oztopo Fisiko eta Sentsozialei buruzko Departamentuarteko Batzordeko kidea dela. Eta, hari dagokion jarduketara esparruan, aipaturiko araudia betetzen du, bereziki obra berriei dagokionez, proiektua idatzi duen arkitektoari berariazko jarraibiderik eman behar izan gabe; izan ere, Nafarroako profesional horiek oso ongi ezagutzen dute araua eta gainera ulertzen dute arau horren bidez ase nahi den beharrian soziala, herritar guztiak, edonolako baldintza fisikoak izanik ere, zerbitzu guztietara iritsi daitezkeen bidean trabarik edo oztopo fisiko edo sentsozialik topatu gabe.

Halaber, eta ahal izan den neurrian, horrelako neurriak sartu dira zahartzat jo litezkeen eraikin eta bulegoetan, horretarako modua ematen zuen edozein eraberritzez baliatuz. Hain zuzen ere, azken garaiotan, xede horretarako erabiltzen ari da Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak eskaturik Nafarroako Gobernuko bulego publikoetan aurrera eramaten ari diren autobabeserako planen aplikazioa. Nahiz eta plan horiek ez duten oztopo fisikoen desagerrarazpena berariaz jasotzen, kasu batzuetan Etxegintzaren Kode Teknikoak plan horietarako egiten dituen aurreikuspenak zorrotza-goak izan ohi dira oztopo fisiko eta sentsozialei buruzko araudia bera baino; beraz, horiek a fortiori betetzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 6ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluak zer bilkura egin dituen eta non. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Jakina denez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak bere III. kapituluan Gobernuaren funtzionamendua arautzen du, eta zehazki bilkuren erregimena: ezartzen da Nafarroako Gobernuak aldian-aldian izanen dituela bilkurak, baina ez arau horretan ez atzetik datorren beste ezeinetan

ez da berariazko maiztasunik edo lekurik adierazten bilkura horiek egiteko.

Praktikan, Espainiako Gobernuan edo erkidegoetako gobernuetan gertatzen den moduan, Sanz lehendakaria buru duen Gobernu Kontseilua gutxi gorabehera astero biltzen da, publikoa eta nabarmena denez, eta astelehenetan egin ohi du bilera. Bilkura Iruñean egin ohi da, Nafarroako Jauregian, nahiz eta zenbaitetan lehendakariak erabaki duen bilkura batzuk Iruñetik kanpo egitea, Nafarroako Gobernuarenak diren espazioetan edo xede horretarako lagatzen dituzten beste entitate batzuenetan, nagusiki udaletan.

Foru lege horretan xedatzen denez, lehendakariak aldeztu aurretik deituko ditu Nafarroako Gobernuaren bilkurak, eta bilkurarako deiarri gaitzerrenda erantsiko zaio. Hori horrela, lehendakariari dagokio deialdia onestea eta bilkura egiteko tokia ezartzea eta, kasua bada, bere garaian argitaratzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluan izanen dituen bi ordezkariak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 13an egindako bileran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 13. eta 15. artikuluetan Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua sortu eta haren izaera eta eginkizunak zehazten dira, eta kontseilu honen osaera zehaztu da, hain zuzen, Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseilua arautzen duen apirilaren 5eko 166/2004 Foru Dekretuan. Foru Dekretu honetako 5.3 artikuluan adierazten da kontseiluko kideetako bi izendatuko dituela Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, zeinaren gaur eguneko izena baita Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordea, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak urriaren 9ko idazki batean adierazten duenez.

Kontseiluaren aipatutako kideak hautatzeko arauak onetsi behar direnez, Erregelamenduko 37.1.9. artikuluekin bat, ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Lurralde Politikarako Gizarte Kontseiluan izanen

dituen bi ordezkariak hautatzeko ondorengo arauak onartzea:

1. Hautaketa Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordeko kide diren foru parlamentarien artean egingen da, boto-txartelen bidezko isilpeko bozketa eginez.

2. Bi ordezkariak aldi berean aukeratuko dira, eta bete beharreko ordezkari-postu adina izen idazten ahalko du boto-txartelean Batzordeko kidea den foru parlamentari bakoitzak.

3. Botorik gehien ateratzen dituzten bi parlamentariak izanen dira aukeratuak.

4. Posturen batean berdinketarik gertatuz gero, hurrenez hurreneko bozketak egingen dira berdinketa hautsi arte.

5. Hautagaiak aurkezteko epea urriaren 15eko 12:00etan bukatuko da.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2008ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 47,00 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Navas de Tolosa, 1</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	--